



KAHOOT DRAGOI BOLA

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. Mangamore 2020ko Kahoot Dragon Bola lehiaketa **online egingo da oso-osorik**.
- 1.2. Lehiaketa urriaren 9an, ostiralean, egingo da, 17:00etan, Mangamoreko [Facebook](#) eta [Ametx Gazteriako](#) Youtubeko kanalaren bidez, eta [Dragoi Bola N-Castek](#) kasteatuko du.
- 1.3. Ez dago parte hartzeko gutxieneko adinik.
- 1.4. Ez da gehieneko plazarik egongo parte hartzeko.
- 1.5. Lehiaketaren dinamika honela garatuko da:
 - Parte-hartzaile guztiek livean egon beharko dira lehiaketan parte hartzeko adierazitako egunean eta orduan, eta stream-a jarraitu beharko dute uneoro.
 - Parte hartu ahal izateko, Kahooten aplikazioa eduki behar da, edo zuzenean [Kahooten webgunea](#) erabili.
 - Kasteatzaileak zuzenduko du eta erraz parte hartu ahal izateko urrats guztiak adieraziko ditu. Lehiaketari ekin ahal izateko PINa eman egingo da, beharrezko azalpenak eman ondoren.
 - Jolasa amaitutakoan, puntuazio altuena duten hiru pertsonak harremanetan jarri beharko dira kasteatzailearekin, harremanetarako bideetan zehazten ditugun sare sozialen bidez.
 - **Lortutako puntuazioa frogatzeko, pantaila-kaptura bat bidali beharko da.**

2. INSKRIPZIOARI BURUZ

- 2.1. Parte hartu ahal izateko, ez da alde zuzenetik izena eman behar; izan ere, kasteatzaileak emandako pin-arekin jolastu ahal izango da.

3. SARIEI BURUZ

- 3.1. Kahootean puntu gehien lortzen duen parte-hartzailea izango da irabazlea. Bigarren eta hirugarren sariak ere banatuko dira.
- 3.2. Antolatzaileek emandako merchandising kontzeptuan emango dira sariak. Halaber, [Selecta Vision](#)-en kortesia sariak (filmak eta telesailak) izango dira.
- 3.3. Txapelketa amaitutakoan, antolatzaileak sarituekin harremanetan jarriko dira dagozkien sariak jasotzeko. Jakinarazpen hori helbide elektronikoa honen bidez egingo da: inscripciones@mangamore.net

Saritutako pertsonak legezko balioa duen NANaren, txartelaren edo dokumentuaren irudi bat eman beharko dute, jaiotze-data adierazita. Sarituak adingabeak badira, aitak, amak edo legezko tutoreak legezko balioa duen NANaren, txartelaren edo dokumentuaren irudi bat eman beharko du, bai eta baimena sinatu ere, semeak edo alabak edo tutoretzapekoak dagokion saria jasoko duela jakinarazi zaiola adierazteko.

4. ANTOLAKETARI BURUZ

- 4.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, lehiaketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolakuntzak eta epaimahaiak.
- 4.2. Erakundeak errespetuzko eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du.
- 4.3. Lehiaketan inskripzioa egiteko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez tratatuko dira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Datuak lehiaketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.
- 4.4. **Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.**



5. HARREMANETARAKO BIDEAK:

Zalantzarik izanez gero, mezu zuzen bat bidal dezakezu helbide honetara:

- https://www.instagram.com/dbn_cast/
- https://twitter.com/Oier_15

